

## **UDAL HILERRIAN ZERBITZUAK EMATEAGATIK EZARRITAKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.**

### **I. OINARRIA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorriz, tasa bat ezarri eta exijitzen du hileta zerbitzuak emateagatik, Ordenantza honetako baldintzetan eta bertan zehaztu diren tarifei jarraikiz.

### **II. ZERGAPEKO EGITATEA**

#### **2. artikulua**

Udal hilerriko zerbitzuak ematea da tasaren zergapeko egitatea. Adibidez, honako zerbitzu hauek ematea:

- a) Ehorzketa unitateak okupatzea.
- b) Ehorztea, hobitik ateratzea, berriz ehorztea eta lekuz aldatzea.
- c) Udalak hilerrian kontserbazio eta egokitze lanen alorrean dituen eskumenak direla-eta ematen diren zerbitzuak, baita hileta eraikuntzen, zerbitzuen eta instalazioen alorrean ere.
- d) Beste edozein, Hileta Polizia Sanitarioaren Araudian adierazitakoarekin bat etorriz bidezkoak direnak edo alde batek eskatuta baimentzen direnak.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

#### **3. artikulua**

1. Zergapeko subjektu pasiboak dira baimena edo zerbitzua emateko eskatzen dutenak, emandako baimenaren titularrak, edo edozein kasutan ere, udal hilerrian ematen diren zerbitzuen onuradunak.

2. Subjektu pasiboaren zerga betebeharreari solidarioki erantzungo diete Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 41. artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoek.

Erantzule subsidiarioak izango dira halakotzat agertzen direnak aipatu foru arauko 42. artikuluan.

## IV. OINARRIAK ETA TARIFAK

### 4. artikulua

Hona hemen zerga ordaintzea dakarten zerbitzuak eta dagozkien tarifak:

#### EHORZTEAK

1. Gorpua , gorpuzkiak edo errautsak panteoian, eta baita horma-hilobian edo apalean trenkada egiteko obrak ere ..... 60,06€
2. Gorpua, gorpuzkiak edo errautsak ehorztea nitxoan ..... 28,21€
3. Nitxoan zortzi urterako emakida: ..... 306,40€
4. Gorpuzkiak edo errautsak ehorztea hezurtegian..... 28,21€

#### HOBITIK ATZERATZEA

1. Gorpua edo errautsak hobitik ateratzea edo lekuz aldatzea..... 28,21€
2. 3 urte ehortzita dagoen gorpua hobitik ateratzea edo berrateratzea ..... 334,61€
3. 3 urtetik gora baina 8 urte baino gutxiagoko gorpuzkiak hobitik ateratzea .. 61,34€

### 5. artikulua

Betiko emakiden kasuan, emakidadunak edo bere oinordekoek egoera onean izan behar dituzte kaperak, hobiak eta abar, eta horretarako beharrezkoak diren obrak egingo dituzte.

Kontserbazio-egoera ezin txarragoa bada, interesdunei egin beharreko obrak emango zaizkie aditzera, eta egiten ez badituzte, alkateak, Tokiko Gobernu Batzordeak proposatuta, erabaki dezake obrak egitea edo zenbatekoa emakidadunari eskatzea, edo emakida deuseztatutzat jotzea hobitik azkenekoz atera zenetik gutxienez bost urte igarotakoan, eta emakidadunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubidea izango.

### 6. artikulua

Ez da errentarik ordainduko horma-hilobiak erabiltzeagatik, honako hauek izan ezik: 4. artikulua aplikatzean sortzen diren tasak, eta hala dagokionean, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga eta hirigintza lizentzia izapidetzeagatik ezarritako tasa.

Zerbitzuak eskuratzeko aukera izango dute zentzean Derio udalerrian erroldatuta daudenek baino ez.

Udalaren jabetzakoak diren horma-hilobien kasuan, hilarriaren kostua kobratuko da, eraztunak eta zenbakiak barne. Inskripzioa ez dago barne, eta horren prezioa dagokion unean zehaztuko da.

## **7. artikulua**

Hilarrietako inskripzioak grabatu egingo dira eta beltzez margotu, inoiz ez erliebean edo metal itxurarekin.

Hilarrian ezingo da loreontzirik jarri, ezta apaingarririk ere. Loreak eraztunetan baino ez dira jarriko, eta inoiz ez dira dagokion hilarria baino handiagoak izango.

## **8. artikulua**

Hilerrian espazio falta dagoenez, horma-hilobietan besterik ez da ehortziko, panteoiak edo horma-hilobiak jabetzan dituztenen kasuan izan ezik.

## **V. SORTZAPENA**

### **9. artikulua**

Tasa eta ordaintzeko beharra sortuko dira zergapean dauden zerbitzuak ematen hasten direnean, eta ondorio horietarako ulertuko da zerbitzu horiek eskatzen diren unean bertan hasten direla, interesdunek eskatuta ematen direnean.

## **VI. KUDEAKETA ETA LIKIDAZIOA**

### **10. artikulua**

1. Subjektu pasiboek kasuan kasuko zerbitzuak emateko eskatuko dute. Mausoleoak eta panteoiak eraikitzeke baimenen eskaerekin batera, gaitasuna duen fakultatibo batek baimendutako proiektua eta memoria aurkeztuko dira, eta bat etorriko dira Eraikuntza, Instalazio eta Obretarako Lizentziak Arautzen dituen Ordenantzan eta hirigintzako lizentziak bideratzeagatiko Tasak Arautzen dituen Ordenantzan agindutakoarekin. Berdin jokatuko da partikularrek udal hilerrian egin nahi dituzten obra guztiekin.

2. Zerbitzuak udal ekimenez edo interesdunak eskatuta emango direla zehaztutakoan eta zerbitzuon legezketasuna aztertutakoan Hileta Polizia Sanitarioaren Araudiari jarraikiz, zerbitzuak eman eta likidatu egingo dira.

3. Zerbitzuak udal ekimenez ematekoak badira, interesdunei entzunaldirako aukera emango zaie aurretik, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legean ezarritako baldintzetan.

4. Zerbitzuak banaka eta modu autonomoan likidatuko dira, eta zerbitzua emandakoan likidazioa jakinaraziko da, udal kutxetan zuzenean sar dezaten zerga-bilketari buruzko foru araudiak adierazitako eran eta epeetan.

## **VII. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

### **11. artikulua**

Zergei dagozkien arau-hausteak kalifikatzeari dagokionez eta arau-hauste bakoitzari kasuan kasu dagokion zehapenari dagokionez, aintzat hartuko da Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa, Udal Ordenantza Fiskal Orokorrean agindu bezala.

## **VIII. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2018ko urriaren 23an eginiko bileran aldatu da, indarrean sartuko da 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarrean jarraituko du berau aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean. Ordenantza fiskal honetan aldaketa partzialik egitekotan, aldatu gabeko artikuluek indarrean jarraituko dute.

Aurrekontuen inguruko foru arauak edo zuzenean aplikatu beharreko beste edozein arauk edo xedapenek aldatu egiten badute tasaren arautzea, Ordenantza Fiskal honetan dagokion aldaketa tazitua egingo da.